

XX. MENDE HASIERAKO TOBERETAKO BERTSO-SORTAK

Maialen Moreno Zubeldia

Euskal Filologian doktorea

LABURPENA

Artikulu honetan hiru bertso sorta eskaintzen dira. Bertso sorta horietako lehena XX. mende hasierako toberen inguruan kokatu behar da. Toberetatik kanpo egina bada ere, tobera horiek eragiten zituzten gertakarien berri ematen digu: alargun eta alarguntsa bikote baten arteko ezkontza salatzen dute bertsoek. Hurrengo biak, bi iturri desberdinetatik jasoak, toberetan kantatzen ziren bertsoak dira. 20 bertsoz osatutako osoena idatziz jasota dago eta gizon alargun baten eta emazte ezkondu baten arteko ezkutuko harremana salatzen du. 12 bertsoz osatutakoak, berriz, aukera ematen digu bertso horien doinua edo airea ezagutzeko. Bertso horiekin toberen pizgarri ziren gertakariak euskarazko bertsoetan jaso ziren bezala erakutsi nahi dira.

Gako hitzak: Bertsoak, toberak, festa, antzerkia.

Jasotze data: 2017ko urtarrilaren 23an. Onartze data: 2017ko maiatzaren 25ean

EARLY 20TH CENTURY VERSE COLLECTIONS WRITTEN FOR TOBERAS

ABSTRACT

This paper presents three collections of verses. The first is linked to the early 20th century *tobera* tradition, which was a kind of festive jesting in which groups would ring cow bells and shout teasing comments about certain members of the local community who were deemed to have done something meriting censure. Even though the first collection of verses are not strictly part of a *tobera*, they nevertheless show this tradition's influence in the type of event they denounce, namely a wedding between a widow and a widower. The other two collections come from two different sources, but are both sets of verses sung as part of a *tobera*. The most complete one is made up of 20 written verses and denounces a secret affair between a widowed man and a married woman. The other collection consists of 12 sung verses and offers the opportunity of hearing the sound and melody of these types of composition. The aim of presenting these collections is to reveal how the scandalous events denounced in the *tobera* tradition were reflected in Basque verses.

Key words: Verses, toberas, festivities, theatre.

SARRERA

Toberak zer ziren, nola antolatzen ziren eta zergatik, aztergai izan dira hainbat ikerketa lanetan. Herriko gazteen ikuspegitik gertakari bat salagarria bazen, gauez ateratzen ziren hori salatzeraz, zalaparta eginez lotsagarri uzteko. Toberetan ezkontzaren ohizko legetik kanpo zegoena salatu ohi zen (adibidez, gizon zahar bat emakume gazte batekin berriz ezkontzea). Salatuek ordainetan dirurik eman ezean, arratsaldez toberak edo antzerkiak antolatzen zituzten. Toberetan antzerkia, dantza, jokabide sozialen kritika, bertsoak eta festa elkartzen ziren, besteak beste.

Gure lan honetan, ez gara sartuko toberen testuinguru historiko eta soziala aztertzen, eta ezta toberak berak interpretatzen ere. Gure helburua tobera horiek eragiten zituzten, tobera horien pizgarri ziren gertakariak euskarazko bertsoetan jaso ziren bezala erakustea da.

Xabier Itçaina irakasleak (1998:371) tobera mustrek urteekin izandako eboluzioa aztertu zuen eta 1930 arte antzeztu ziren tobera mustrei “klasikoak” deitu zien. Handik aurrera eboluzionatzen joan baitziren.

IHOLDIKO BERTSO-SORTA

Guk ekarri dugun lehen bertso-sorta klasikoa delako garai horretakoa da, eta bertako gertakariak aipatzen ditu. 13 bertsoz osatutako lehen sorta honetan 1908an Iholdi herrian gertatutakoak aipatzen dira. Lehenik, erakusten dizkigu arratsaldez ospatutako tobera edo antzerki horien osaketa (zaldizkoak, bolantak dantzari, musikariak, karrosan justizia, zirtzilak) eta horietan salatzen zuten gaia (alargun-alarguntsa zaharren arteko ezkontza).

Hauek ere toberetatik kanpo egindako bertsoak dira, baina plazan ematen ziren bertsoez hainbat xehetasun irigarri ematen dizkigute: nolako enkontruak izaten zituzten 60 urteko alargunak eta emazte alarguntsak, eta geroko ezkontzeko erabakia.

Bertsoek berretsi egiten dute George H erelle-k (1924:510) gaueko toberez ari zela aipatzen zuena, alegia, herriko gazteek toberagai izango zirenei aukeran ematen zietela: isiltasunaren ordaina pagatu edo irri-gai bihurtu. H erellek Baxe Nafarroako Duzunaritzen eta Zuberoako Maulen 100 liberen ordaina eskatzen zuteneko testigantzak ematen ditu. Bertso sorta honetan ere horixe bera erakusten zaigu, baina Iholdin gertatua.

Pagatuko zutela hitz eman eta gero, bete ez zuten, gazteek bertsoak atera zituzten. Bukaeran esaten duen “herri guztiak zuen ohorea egin”. horrekin, herriaren onespina beharrezkoa zela agertu nahi duela dirudi. Bertso horiek egiteko beharra justifikatuz bezala. Itçainak (1996: 435-436) euskal toberak egiteko ohituren artean garrantzitsuenak “idatzi gabeko lege morala” betetzearen garrantzia azpimarratzen du: *“Le charivari reste d’abord un droit de regard de la soci et e sur la vie priv ee de ses membres”*.

Bertso sortaren amaieran, Bernard Etxeparek erabili zuen formula bera darabil bertso-egileak, “Birjina Maria arrartekotzat hartuz” bide onetik joan daitezela opa die-nean. Ematen du nahiko ohikoa izan dela formula hori Baxe Nafarroan. Arau morala zein den erakutsi nahi izango balitz bezala. Ana Toledok hau dio Etxepareren bertsoez (2003:237):

“Ez ditu dibertimendu hutserako egin, entretenimendu hutserako. Aitzitik, besterik du jomuga: irakatsi modu entretenigarrian. Izan ere, modu entretenigarrian giza-kia abisatzea nahi du ongia bila dezan eta gaizkitik urrun dadin. Bere garaiko euskaldun mundutiarrari honako aholku hau igortzen dio: bazter ezazu haragizko maitasuna eta ordezkia ezazu Mariarenganako maitasunagatik”.

Bertso hauek iholdiar baten eskutik jaso genituen. 1928an sortutakoa, 2017an joan zaigu 89 urterekin. Fernand Franchisteguy kantu zalea zen eta herrian entzundako kantu zahar eta berriak idaztea maite zuen. Gizon sentibera eta lagunkoia, azken unera arte edonor errezibitzeko prest egon zen.

Hemen bertsoen transkripzioa:

Iholdyko herrian

1.-

Mila bederatzi ehun eta zortzian
Buruiaren kasik egun ondarrian
Libertimendu bat Iholdy herrian
Egin izan zauku ordu ederrian.

2.-

Zinez orduan zen egun hartan Iholdy
Egia erran gabe ni ez naite geldi
Hirur hogoi gizon dira lerroan jalgi
Horien zerbitzeko berrogoi bat zaldi

3.-

Berrogoi zaldizko, kapitaina gidari
Plazan sartzearekin, bazuten behari
Hogoi bolanta arin, guziak dantzari
Aire eder joiten, bost sei musikari

4.-

Horien ondotik, karrosan justizia
Ez baitzagon charrena, haren presentzia
Hiru zirtzil gero, dena drolezia
Hoinbertze sinoren lan da pentsatzia.

5.-

Bi bertsulari ari ziren koblaka
 Biek ere bazakiten ederki elheka
 Ez zezan nehoke zangorik harrapa
 Ez dute ez erran zer zuten sujeta.

Atsalde haskaria andreak berekin
 Ereman eta jan, biek elgarrekin.

6.-

Zer zuten sujeta erranen dut nik ontsa
 Egiaren erraiteko ez naiz nihun lotsa
 Bat zen alharguna, bertzia alharguntsa
 Bi burhaso chaharren arteko ezkontza.

10.-

Azkenean bada zuten deliberatu
 Behar zutela noizbeit biek esposatu
 Gazteriak orduan zerbait dei galdatu
 Ehun liberetan dira denak arranjatu.

7.-

Zahar ala gazte, nor nahi ezkont daite
 Bi libroek elgar dutelarik maite
 Gizona ez zen presan, ja hirur hogoi urthe
 Emaztekigno horrek beroazi duke.

11.-

Gizonak hitzeman ditu ehun libera
 Gustian uzteko heiek esposatzera
 Biak ichilka gero joan Luzairera
 Gazteriak hatzeman tu jalgirik bidera.

8.-

Emazte horrek baitzuen zerbeit arrangura
 Bera juaiten zen jauna zen lekura
 Hura artzain baitzagon mendian ardura
 Haren artzain mantan zen heien bilkhura

12.-

Allons! gizona zuk ordu zinduke
 Dituzunaz geroz hirur hogoi urthe
 Hitzeman solasak behar dire bethe
 Gizona hitz eta obrek egiten baitute.

9.-

Bilkhura gochorik arratsaldetan behin
 Mantaren azpian, biek dukete egin

13.-

Hamahiru bertsutan finitzen dut koplak
 Herri guziak egin du zuen ohoria
 Gida zaitzete ontsa, jestu charrak kambia
 Arrartekotzat hartuz Birjina Maria.

Euskarazko bertsoek oinarri ematen diote Herélle-k (1924:439) eta Itçainak (2012-2013) dokumentu judizialetan eta kazetetan arakatuz egindako ikerketari, dokumentu horiek dioten bezala, toberek salatzen zituzten gaiak euskarazko bertsoetan agertzen baitziren eta horietako batzuk ekarri ditugu.

Xabier Itçainak (2012:77) toberetatik kanpo egiten zituzten kronika gisako bertso batzuk bildu zituen. Baina aipatzen zuen, zoritxarrez, toberak egiten ziren egunean, plaza betean ematen ziren bertsoez ezer gutxi dakigula, seguraski orduko prentsan agertzeko on ez zirelako, bertsolariak apezekin harreman zaila izaten zutelako eta kolariak maiz eliz-kantariak izaten zirelako. Aurretik aurkeztutako bertso sortan plazan ematen ziren bertsoek zer nolako gaia zerabilten aipatzen da, orain arte argitaratutako bertso-sortetan agertzen ez zen xehetasuna.

Jarraian, beste bertso sorta bat aztertuko dugu, itxura denez, gauazko toberetan kantatzen zena eta bi lekukotasun desberdinetan aurkitu duguna, bata bestea baino osoagoa.

GARRUZE ETA LUKUZE HERRIETAKO GERTAKIZUNEN BERTSO SORTA

Bigarren bertso-sorta honetako bertsoak, zalantzarik gabe, ezagunak izan ziren, eta jendeak gogoan atxiki zituen. Bertso horiek oraindik ere ezagunak dira Baxe Nafarroan. 2010ean egindako herri kontakizunei buruzko bilketa batean Mehaineko gizon bat ezagutzeko aukera izan genuen eta hark gaztetan ikasitako bertso batzuen berri eman zigun. Bertso-sorta hori 12 bertsoz osatuta zegoen. Geroago sorta bera 20 bertsoetan emana ere aurkitu genuen, dokumentu zaharrago batean. Bi sortek, ordea, muinean gauza bera kontatzen dute: alargun baten eta emazte ezkondu baten arteko harremana, Baxe Nafarroako Garruze eta Lukuze herrien artean gertatua.

Manex delako bati etxe bat egiteko lana eman zioten Garruzen eta aukera hori baliatuz Margarita delako emaztearekin egotea lortu zuen. Manex horrek diruduna behar zuen izan, eta adinean gora joan arren, emazte gazteagoekin ibiltzeko gogo zuen. Bertsoek jokabide horiek salatu nahi dituzte, aldi berean, bizitza pribatuko kontuak azalera ekarriz, entretenigarri izateko aukera ematen dutelarik. Salaketa eta aisia elkartzen ziren beraz gaueko lagun-arteko saio horietan. Kontuan izanik arratsetan eta tutak joz gazte taldeek lau haizetara hedatzen zituztela kontu horiek.

Hemen bertsoen transkripzioa, eta bertso horietaz eman zigun azalpena:

“Emazte bat bazan biziki bihotz onekoa, gizonak maite zitian biziki, eta auzoko herrian bazen mehaxtura. Hak berriz emazteak maite, ta aldi batean errekontratu ta, elgarri gustatu, ta geo pasatu zienak pasatu, voila! Eta ordian denbora hetan ematen zuzten kantiak. Gazteriak beti holako hoitan bazuten jostatzeke molde (b)at, atsetan. Bestenaz, ezpaitzen jegitzen eta beren buruak etzuzten eakutsi nahi. Ordian atsetan joi-ten zien bers zahar batzu ta tuta ta harekidan, ttutta ta zanpaka ta bertsiak in ta hek kanta ta trufatzen zien holako jendetaz trufatzen zien. Hek bekatu handiak baitzien. Gero artean bertsiak badira eta hek bertso hek-eta gaztian ikasi ttut eta, hok goguan atxitzen ttut”:

1.-

Herri pollit bat bada, deitua Lukuze
haren auzo herria deitua Garruze
nahiz horien arteko bidia den luze
Lukuztar gizon batek pasatzen du aise.

2.-

Lukuztar gizon hori zoin baden ardita
zaharra izanagatik bildu du kredita
zonbaiten gauzek ere baitute debita
zer sostengua duen Garruzen Marg(a)itak

3.-

Margita senarduna, Manex alarguna
Manexen emaztia xangrinatik joana
jakin zualarik nola zabilan senarra
arrazoinakin galdu du bere osasuna

4.-

Gizon hori zen xarpantier eta prenurra⁴⁵
Margitaren senarra ere xarpantiera
Garruzen hartu zeuten etxe bat e(g)itera
orduan bildu zuen Margita sarera.

5.-

Lanean zirelarik etxe berri hartan
erran zion Manexi: “zauri eguerditan”
biek pasatzen zuten pausako denbora
bere senarra aldiz igortzen lastora.

6.-

Finitu zutelarik Garruzeko lana
Manexek ere egin zien bere plana
Hargindegy behar diat, ekarri niganat
bestenez ez diat ikusiren madama.

7.-

Hargindegy jin zaion erran ber gogotik
ezpaitzuan pentsatzen zoala hain ondotik
hura jin orduko Manex doa lanetik
joaiten da trenka bidez, ez bide berritik.

8.-

Iragaiten zelarik xendrako bidian
norbait errekontratu ohartu gabean
erran zion: “zoaz busti gabe maneran”
zer ihardetsi zion, ez dut nahi erran.

9.-

Gizon horrek baditu hiru hogoi urte
urteren arabera zentza ordu luke
bainan bizio tzarrak kitatzeko neke
bainan bizio tzarrak kitatzeko neke⁴⁶.

10.-

Gizon hori zen gaztitan orgulutsia
emaztia beharrez beden erakutsia
uste baino beherago izan zen jautsia
zaharra hartu zuen eta itsusia.

11.-

Zaharra hartu zuen dotez baitzen ontsa
hori da amodiorik gabeko ezkontza
ezkongeiak izan zizte hortako lotsa!
amodiorik gabe nehor ez esposa.

12.-

Plazerrago laiteke kanbia baladi
joan ez daadien debrua gidari
mulde ederrak eman orde andre sari⁴⁷
oro utz eta eman penitentziari.

45 Frantsesezko “charpentier eta preneur”, alegia, “zurgin edo arotza eta saltzailea”

46 Ez du bertsoa oroitzen eta aurrekoa bi aldiz errepikatzen du.

47 Ezkontzerakoan “emazte saria” edo “andre saria” ematen zen, dotea bezalakoa.

Bertso egilearen nahia gizon-emakume horien jokabidea salatzea da, eta bertso irrigarriak baliatzen ditu horretarako. Gizon diruduna aukeratzen baitu, zaharra eta itsusia bazen ere. Jokabide aldaketa eskatzen die, itxurakeriak-eta alde batera uztea.

Bertso hauek muinean, jarraian erakutsiko ditugunen berdinak dira. Berdinak dira kontatzen duten horretan, baina 20 bertsoz osatutako bigarren sailak bertso gehiago izateaz gain, desberdin josten ditu, hitz eta esapide desberdin batzuk ditu. Baina aurreko lekuko horren ekarpena, batez ere baliagarria izan bada, kantu horien doinua edo airea ezagutzera eman digulako izan da. Berak honela kantatu zituen⁴⁸:

♩ = 90

He - rri po - lit bat ba - da dei - tu - a Lu - ku - ze Ha-

5 ren au - zo he - rri - a dei - tu - a Ga - rru - ze Na-

9 hiz ho - rien ar - te - ko bi - di - a den lu - ze Lu-

13 kuz - tar gi - zon ba - tek pa - sa - tzen du ai - se.

Baxe Nafarroako Ibarlan elkarriketatu genuen gizon batek kantu-kahier bat helarazi zigun. Emazte baxe-nafartar batek Ameriketara zela egindakoa zen. Bertan, besteak beste, 20 bertsoetan ixtorio bera agertzen da, bertso batzuk aldatuta eta beste gehigarri batzuekin. Aurretik agertutako bertso-sorta eta orain agertuko duguna gertakizun beraren erakusle dira. Margarita delako emazte bat Harguindeguy delako batekin ezkondua izan arren, Manech delako batekin egoten da, gizonaren isilik. Beraz, 60 urteko alargun baten eta emazte ezkondu baten arteko harremanak salatzen dituzte bertso hauek ere.

Lehen bi bertsoak sarrera gisakoak dira, eta hurrengo laurak (3.etik 6.enera) aurreko sortako berdinak. Hurrengo bi bertsoetan, berriz (7. eta 8.enak) aldaketak datoz. Hurrengo bost bertsoak (9-13 bitartekoak), berriz ere, aurreko sortakoen berdinak dira. 12. bertsoa azken bertso lerroa aurreko bertso sortako kontalariak ahaztuta zeukan

48 Eskerrak eman nahi dizkiot Miren Zubeldia lehengusuari, doinua pentagramara ateratzeagatik.

eta argitu egiten digu: « hola bisi eta hala hil behar luke ». Azken 7 bertsoak (14.etik 20.enera) Manechi eta Marguitari eskaintzen dizkie : Manehek ez zuela bere emaztea izandakoa benetan maitatu, amodiorik gabeko ezkontza izan zela, Marguita fanfarroi hutsa zela bere senarrari adarrak jartzean ...

Hona hemen bigarren bertso sortaren transkripzioa:

Kantu berriac (20 bertso)

1.-

Zombait bertsu berriren noa kantatzera
Sujetic asci baita elhen arabera
Elhe charric ez balits nic es nio heda
Bainan ez dite Gorda zombaiten manera

2.-

Manera tcharrian eta gaisci bisi dira
Bi hauso herrietaco Jaun andere biga
Es da es secretian horien manera
Nic es nisaske salha secretiac balira

3.-

Herri pollit bat bada deitua Lukuse
Haren auzo herria deitua Garouse
Horien arteco bidia nahi es den luse
Lukustar gison batec pasatsen du aise.

4.-

Lukustar gizon hori zombat den hardita
Sahar isana gatic bildu du Credita
Zombaiten gautsec bethi badute debita
Zer sustengua duen Garousen Marguitac

5.-

Marguita senhar duna. Manech alharguna
Manechen emastia changrinitic Juana
Jacin suenian nola sabilan senharra
Arasoinecin galdu suen osatsuna.

6.-

Manech hori da Charpenter Entrepenera⁴⁹
Marguitaren senharra ere Charpenterra
Garousen hartu suen etche bat itera
Orduan suen bildu Marguita Saretara?

7.-

Ari sirelarican etche berri hartan
Marguitaren senharrac chuchen Juaitecotan
Erran sion Manechi sauri eguerditan
Hantic harat juaiten sen egun gusietan?

8.-

Manechi hanche laster Jin saio gougoua
Baitsakien Marguita ser gisas Amora
Harecin etcaten sen pausaco dembora
Eta bere senharra igortsen lastora

9.-

Finitzen zutelari Garouseco lana
Manechec gero ere egin suen plana
Hargindeguy gaisoa behar diat ni gana
Besthela ez diat Ikutsiren Madama?

10.-

Hargindeguy jiten saio erran besain gogotic
Ez ustean Yuanen sela Marguitaren gana
(Marguitaren ondotic)
Hargindeguy yin orduco Manech Atelierretic
Yuaiten sen bide chendras es bide beretic?

49 “Entrepreneur” edo kontratista

11.-

Behin soalarican usatu bidian
 Presuna bat aseman suen bide chendran
 Hac erran sion busti gabe Manech soasi maneran
 Ser ihardetsi sion? Ez dut nahi erran?

12.-

Gison horrec baditu hiru hogoi urthe
 Adinen arabera sentza ordu luke
 Bainan bisio tsarra kitatseko neke
 Hola bisi eta hala hil behar luke

13.-

Plaserrago litake cambia baladi
 Mundutic yuan ez dadin debrua gidari
 Muble ederrac eman orde andre sari
 Oro utsi eta eman Penitentsiari?

14.-

Suhur denac hobe du chuchen ibiltsia
 Gaisci ibili bada erreparatsia
 Nahi gabe hartan har Pasientsia
 Bacoichac kareatus bere Kurutsia?

15.-

Esagutsa duenac esemplua hor du
 Yesusek kurutsia guretsat yasan du
 Galdua sen gisona erosi esbalu
 Hortas es da orhoitsen Manech Articulo?

16.-

Andrea hil sacolaric Manech Articulo
 Hain sesios zabilan alegia dolu
 Marguita gana yuan sen besain salhu
 Nigarres egonen sen Maite izan balu?

17.-

Manech hori gastian hain sen Urgutsua
 Andre propia beharres hain erakutsia
 Uste baino aphilago isan zen yautsia
 Saharra hartu suen eta Itsutsia?

18.-

Itsutsiari lotu sen suelaco Sosa
 Hori sen amodioric gabeco escontsa
 Escont geiac hortas isan bithe lotsa
 Amodioric gabe Nehor es esposa?

19.-

Marguitaren daco tut bi pertsu ondarrac
 Fanfarronic dabila biribil bulharrac
 Harguindeguy gaisoari eman es adarrac
 Odol hunik iten du harecin senharrac?

20.-

Madama moko fier fanfarrun bruneta
 Beranteguy litake dembora yuan eta
 Tenorian egitea asci phensaketa
 Nahi baduzu gero urus siten Guerta?...

Bertso sortak irakurrita ondorioztatzen dugu horien helburua zigor morala egi-
 tea zela, jokabide okerrak salatzea, eta horretarako festaz baliatzen zirela, festa antola-
 tzen zutela, bertso eta guzti, herriaren aurrean ezagutzera emateko. Kanpotik, horiek
 entzunda, bertsoak bere horretan irrigarriak dira, baina horiek egin ziren garaian, biga-

rren asmo hori ere bazela ezin ahaztu : gaizki egindakoak salatzea, bekatu egileak nabarmen uztea, eta gertakari horietatik libertimendua sortzea.

Amaieran, hemen transkribatutako lehen eta hirugarren bertso sorten jatorrizko iturria gehitu dugu. Bigarren bertso sorta, kameraz grabatu zen bere doinuarekin, eta beraz, ez dago paperezko jatorrizkorik.

BIBLIOGRAFIA

- Hérèlle, George (1924): *Les charivaris nocturnes*, RIEV, 15(3), 504-522 or.
- Itçaina, Xabier (1996): *Sanction morale, fête et politique: le charivari à Itxassou au XIXe siècle*, Revue d'Histoire de Bayonne du Pays-Basque et du Bas-Adour, 151, 435-450 or.
- (1998): *Tobera-mustrak Lapurdi barnekaldean*, Sukil, Cuadernos de cultura tradicional, 2, Iruña, 369-386 or.
- (2012-2013): *Baigurako bolantak. Toberak eta ohidura dantzatuak Irisarrin*, Bulletin du Musée Basque, 1. hiruhilekoa, (179 zenbakia) 65-89 or. eta (180 zenbakia), 73-81 or.
- TOLEDO, Ana M^a (2003): *Maitasun mundutiarra Etxeparerengan: "Baskoen Gaztiguia"*, Iker 14, Euskal gramatikari eta literaturari buruzko jardunaldiak XXI. mendearen atarian, 2. bol., 237-256 or.

ERANSKINAK

I Tholdyko herria. X

Zen

196 bita bederatzi elun eta zortzi
 Euzumaren kasik egun ondarian
 Bilbatimandu bat Tholdy herria
 Euzum izan zanku orone ederran.

II

Zinez ordian zen egun hartan Tholdy
 Euzia eran gale ni ez naita ofeldi
 Hain hogoi gizon dika leuan jalgi
 Horen zelitzuko leuogor bat zaldi.

III

Buruogor zaldyko, kapitaina gidari
 Blazan hartzeanekin bazuten behari
 Hogoi kolanta arin, gizona dantzari
 Euzia eder joitau, bot. sinusakari.

IV

Hoin ondotik, kanosun puztizia
 Ez baitzagon charra kareu puztizia
 Hain gutxiel gero, dena drolezia
 Hoin lutzetzi amoren lan du puztizia.

V

Bi batzulari ari ziren kolbalar
 Biki ne bazakiten ederlin elrika
 Ez zegoen nehoke zangoitza harapa
 Ez dute ez eran zen guten sufeta.

VI

Zen guten sufeta eranen dut nika outsa
 Euzian eranteko ez naiz nikun lotsa
 Bat zen alharquna, butzia alharquntza
 Bi burhar elrikaren anteko ez kurtza.

Secida





